


Edukiera

Edukiera unitateek ontzi batean, botila batean adibidez, sartzen den likido kantitatea neurtzen dute eta **LITROA** da unitate nagusia.


- LITROA baino unitate handiagoak hauek dira: **KILOLITROA**, **HEKTOLITROA** eta **DEKALITROA**
- LITROA baino unitate txikiagoak hauek dira: **DEZILITROA**, **ZENTILITROA** eta **MILILITROA**.

Edukiera unitate guztiak eskala honetan ordenatu daitezke:

kl	hl	dal	l	dl	cl	ml
1000 l	100 l	10 l	1 l	0,1 l	0,01 l	0,001 l



X 10



: 10

Ohartu unitate batetik beste batera pasatzeko:

- Eskuinerako** jauzi bakoitzean, x 10 **biderkatu** beharko dugu.
- Ezkererako** jauzi bakoitzean, : 10 **zatitu** beharko dugu.

Adibidez:

- 2 hektolitro litrotara pasatzeko = $2 \times 10 \times 10 = 2 \times 100 = 200 \text{ l}$
- 700 mililitro litrotara pasatzeko = $700 : 10 : 10 : 10 = 700 : 1000 = 0,7 \text{ l}$

Edukiera neurtzeko hainbat tresna erabiltzen dira, hala nola:

 Botilak eta latak	 Pitxer eta koilara graduatuak.	 Probetak, matrazak... laborategietan erabiltzen diren ontziak.
--	---	--

Gogoratu edukiera bi modutan adierazi ahal dela:

- Forma sinplea, unitate bakarra** erabiliz. Adibidez: **675 ml**
- Forma konplexua, unitate batzuk** erabiliz. Adibidez: **6 dl 7 cl 5 ml**

Ikasi buruz edukiera unitateen eskala. Oso ongi ikasita duzunean, sakatu "**ESKALA IKASI DUT**" dioen botoian, eta gero "**TERMINADO!**" dioen botoian, hurrengo fitxarekin hasteko.

ESKALA IKASI DUT